

# RASFF

---

# TXOSTENA

ALERTAK ETA

JAKINARAZPENAK

## ANIMALIEN ELIKADURA

2016ko LEHENENGO

LAUHILEKOA

Jakinarezpenen sailkapena

Jakinarezpenen jatorria

Jakinarazitako arriskuen tipologia


Tartean dauden lehengai eta pentsuak

Laburpen-taula

### JAKINARAZPENEN SAILKAPENA

2016ko lehenengo lauhilekoan, animalientzako elikagaiei buruzko **74 jakinarazpen** egin dira. Horietatik **6 alertak izan dira, 55 informazio-jakinarazpenak eta 13 mugan egin diren ukapenak.**

Egindako kontrol-motari dagokionez, **23 jakinarazpen Mugako Ikuskapen Postuek (MIP)** igorri dituzte, **16** pentsuen ekoizpen-kateko zenbait arlotan egindako **Kontrol Ofizialek**, eta **35 autokontroletan atzeman dira** eta industriak berak igorri ditu.



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Epe horretan jasotako **74 jakinarazpen horietatik 36** (% 49) **beste herrialde batekoak** izan dira. Jakinarazpen gehien herrialde hauek egin dute: 7 Thaiandiak, 5 Brasilek eta 5 Txinak.

**Thailandiari** dagozkion jakinarazpenen arrazoi nagusia **maskotenzako pentsuan merkurioa** hauteman izana da.

**Brasili** dagokionez, berriz, jakinarazpenak, batik bat, honako hauekin daude lotuta: **B1 aflatoxina txorientzako kakahueteetan eta salmonella soja-irinetan.**


**Txinari** dagokionez, bestalde, jakinarazpenek lotura zuten, gehienbat, **soja-taloetan salmonella** egotearekin.

**Jakinarazpen gehien** egin duen herrialdea **Suedia izan da: guztira 12** egin ditu. Atzetik ditu Alemania (11), Belgika (8) eta Erresuma Batua (8).

### JAKINARAZITAKO ARRISKUEN TIPOLOGIA

Denbora-tarte horretan detektatutako arrisku gehienak **mikrobiologikoak** izan dira (**% 59**). **Metal astunek jakinarazpenen % 14 eragin dituzte, eta mikotoxinek % 11. Beste** arrisku batzuek (gospol askearen presentzia, pestizidak eta abar) jakinarazpenen **% 14** eragin dituzte.


Arrisku mikrobiologikoei dagokienez, salmonellak eragin ditu jakinarazpen gehienak (44 jakinarazpenetik 40). Salmonella detektatu den lehengaien artean, arrain-irina, txakurrentzako mastekagarriak eta sojatik, koltzatik eta ekiloretik eratorritako produktuak dira nagusi.



### TARTEAN DAUDEN LEHENGAI ETA PENTSUAK

Produktuka, **lehengai** dagozkie jasotako **jakinarazpenen % 74**, **laguntza-animientzako** pentsu eta produktuei **% 23**, **loditzeko animientzako** pentsu konposatuei **% 1** eta **gehigarri eta aurre-nahasketei** % 1.

Jakinarazpenetan zerikusia izan duten produktuei dagokienez, honako lehengai hauek nabarmendu dira hurrenkera honetan: **maskotentzako pentsuak (10)**, **txakurrentzako mastekagarriak (6)** eta **animalia-jatorriko proteina prozesatuak (7)**.



### AURREKO LAUHILEKOAREN ALDERAKETA

- 2016ko lehenengo lauhilekoan **74 jakinarazpen** egin dira; 2015eko hirugarren lauhilekoan, berriz, 78 jakinarazpen egin ziren.
- RASFFk jaso dituen jakinarazpenen artean aipagarria da sektoreko enpresek beraiek gauzatutako autokontrolak jatorri dituzten jakinarazpenek izan duten gorakada (2015ean % 18 izan ziren, eta 2014an % 49). Halaber, urritu egin dira Mugako Portuek egindako jakinarazpenak (2015ean % 55 izan ziren, eta 2014an % 31).
- Lehenengo lauhileko honetan, jakinarazpenen % 49ren jatorria hirugarren herrialde batean egon da; 2015eko hirugarren lauhilekoan, berriz, % 63 izan ziren mota horretako jakinarazpenak.
- Jakinarazitako arrisku-motei dagokienez, azpimarratu beharra dago nabarmen egin dutela gora maskotentzako pentsuetan detektaturiko bat ez etortzeek (10) eta txakurrentzako mastekagarrietan detektaturikoek (6).

**Eranskina.** RASFFren bidez 2016ko 1. lauhilekoan animalien elikadurari buruz egin diren informazio-alerten eta jakinarazpenen laburpen-taula.

ARRISKUA	MOTA	Zk.	PRODUKTUAK	Zk.	ESPEZIEA
Mikrobiologia	Salmonella	38	Soja-irina	1	<i>Salmonella</i> kubatarra, <i>Salmonella</i> Loenga, <i>Salmonella</i> Mbandaka
				1	<i>Salmonella</i> infantis, <i>Salmonella</i> Mbandaka, <i>Salmonella</i> Oranienburg, <i>Salmonella</i> typhimurium
				1	<i>Salmonella</i> Mbandaka
			Soja-taloa	1	<i>Salmonella</i> Aberdeen , <i>Salmonella</i> Mbandaka
				1	<i>Salmonella</i> Give
				1	<i>Salmonella</i> Mbandaka
				1	<i>Salmonella</i> Mbandaka, <i>Salmonella</i> Senftenberg
			Soja-estraktua	1	<i>Salmonella</i> Havana
				1	<i>Salmonella</i> Mbandaka
			Soja-haziak	1	<i>Salmonella</i> Mbandaka
				1	<i>Salmonella</i> Senftenberg
			Txakurrentzako mastekagarriak	3	<i>Salmonella</i> spp.
				1	<i>Salmonella</i> Derby
				1	<i>Salmonella</i> Livingston, <i>Salmonella</i> Schwarzengrund
			Koltza-irina	1	<i>Salmonella</i> Kentucky
				1	<i>Salmonella</i> Senftenberg
				2	<i>Salmonella</i> Mbandaka
			Koltza-taloa	3	<i>Salmonella</i> Senftenberg
			Eraldatutako animalia-proteina	2	<i>Salmonella</i> spp.
			Haragi-irina	2	<i>Salmonella</i> spp.
			Ekilore-irina	2	<i>Salmonella</i> agona
				1	<i>Salmonella</i> spp.
			Ekilore-taloa	1	<i>Salmonella</i> Mbandaka
				1	<i>Salmonella</i> Senftenberg
			Arto-glutena	1	<i>Salmonella</i> Rissen
			Maskotentzako pentsua	1	<i>Salmonella</i> Gold Coast
			Txerrikumeentzako pentsua	1	<i>Salmonella</i> Senftenberg
Ogiaren azpiproduktuak	1	<i>Salmonella</i> typhimurium			
Arrain-irina	1	<i>Salmonella</i> spp.			
	1	<i>Salmonella</i> salamae			
	1	<i>Salmonella</i> Infantis			

ARRISKUA	MOTA	Zk.	PRODUKTUAK	Zk.	ESPEZIEA
<b>Mikrobiologia</b>	Salmonella + enterobacteriaceae	2	Arrain-irina	1	<i>Salmonella spp + enterobacteriaceae</i>
			Txakurrentzako mastekagarriak	1	<i>Salmonella spp. + enterobacteriaceae</i>
	Enterobacteriaceae	4	Arrain-irina	1	<i>Enterobacteriaceae</i>
			Irin-harra	1	<i>Enterobacteriaceae</i>
			Maskotentzako pentsua	2	<i>Enterobacteriaceae</i>

ARRISKUA	MOTA	Zk.	PRODUKTUAK	Zk.
<b>Mikotoxinak</b>	B1 Aflatoxina	8	Kakahueteak	6
			Artoa	2
<b>Dioxinak</b>	Dioxinak	1	Sagar-mamia	1
<b>Metal astunak</b>	Artsenikoa	1	Leonardita	1
	Mercurioa	8	Legamia	1
			Maskotentzako pentsua	7
Beruna	1	Oreinki-irina	1	
<b>PAE</b>	PATak	1	Lumen proteina hidrolizatua	1
<b>Besteak</b>	Azido zianhidrikoa	1	Lihoa	1
	Selenio-eduki altua	1	Aldez aurreko nahaste minerala	1
	Faltsutzea	1	Legamia.	1
	Zekale-ainoa	1	Zekalea	1
	Baimenik gabeko banatzailea	1	Arrain-irina	1
	Gosipol askea	2	Kotoi-hazia	2
	Animaliak elikatzeko desegokia	1	Artatikia	1
	Oxitetraziklina	1	Garagar-legamia	1
	Pirimifos-metil	1	Zereal-zahia	1